



ALFONSO ZAPICO



I. atala
Joyce Familia



James Joyce I.a



James Joyceren birraitona Corken jaio zen, XIX. mende hasieran. Ez zuen bizitza erraza izan; hein handi batean lur-jabeen kontra jarduten zuen bazter-nahasle katolikoen Whiteboysen aldeko izateagatik, heriotzara kondenatu baitzuten, nahiz gero zigorretik libratu. Suerteko gizona, jatorrizko Joyce hau.

Hona, nagusiki, bere ondorengoei utzi zien ondarea: abertzaletasun kartsua, kleroarekiko arbuio sakona, eta lan asko hasi arren bat ere aurrera ateratzeko gaitasun eza, gero etorriko ziren Joycetarren bizitzan ohiko berezitasuna.

1835ean, gatz eta kare meategi bat ustiatzeko baimena eskuratu zuen, Corketik gertu; aukerako negozio onuragarria inondik ere. Baina 1852rako erreka zeharo jo zuen.



James Joyce II.a



Joyce gaztea azeri samarra zen. 21 urterekin, Ellen O' Connellekin ezkondu zen. Corkeko familia aberats eta boteretsuenetako alaba batekin.

Ezkondu ostean, irlandar zaldunaren itxurak egiten ibili zen, eta jende ospetsuarekin harremanetan, haren negozioek behea jo eta porrot egin zuten arte.

Andrearen sendiari esker, lanpostu xume bat lortu zuen Hackney Coachesen, inspektore, eta bertan aritu zen lanean hil arte, hau da, 1866 arte.



John Joyce




Pertsonaia konplexu samarra zen gure Jamesen aita. Gero semea ezagun egingo zuen jeinu bikain bera baitzuen. Ikasle ona, jauzian txapelduna, tiratzaile aparta, landan zeharkako korrikalari bikaina, kantari eta aktore fina izanik ere, bere talentu handiegia oztopobide zitzaion, eta porrota, halabeharrezkoa.


Gazte kaskarina zenez, amak Corketik Dublinera bidaiatu behar izan zuen, seme manugaitza hantxe zentzatu zitzaiolako eta lan ondradu bat bilatuko zuelako itxaropena baitzuen andre gajoak. Aitzitik, gure John xelebreak belaontzi bat erosi eta Dalkey inguruetan nabigatzen ematen zuen denbora.



Corkeko gizon batek John Joyce engainatu zuen, eta destileria bat erosi zuten bien artean. Dublingo aldirietan.



John ez zen oso abila negoziatarako, eta egun batean ohartu zen sozioak iruzur egiten ziola eta diru guztia desagertu egin zela. Chapelizod Distilling Company pikutara joan zen.



Baina zoriak ez zion artean bizkarra eman gure Joyce xelebreari: 1880an hauteskunde orokorrak izan ziren, eta Johnnek, nazionalista izanik bera, politikan sartzea erabaki zuen urte gorabeheratsu haietan...

United Liberal Clubeko idazkari egin, eta kanpainan aritu zen Dublin. Brooks eta Lyonseko hautagai liberalen alde, lehian ari baitziren, nork boto gehiago atera, kontserbadoreekin: Jim Sterling eta Guinness garagardogile ahaltzuarekin.



Brooks eta Lyons diputatu irten ziren. Joycek, saritan, biziarteko lanpostu bat lortu zuen Dublingo Zerga Bilketaren Bulegoan.

Egoera sozial eta ekonomiko ona iritsirik, John Joyce prest zegoen ezkontzeko. Arreta eman zion neska batek, zeinak, berak bezala, Rathgarreko eliz abesbatzan kantatzen zuen.





May Murray -neska ilehori bat eta eraman handikoa, gainera- berehala ohartu zen tenore-ahots ezin finagoa zuen gizon alai hark erakartzen zuela. Eta egiazko bikotea osatu zuten, bata bestearekin uztartzeko jaioak baitziren.

Mundu guztiak ez zuen berdin pentsatzen, noski. Mayren aitak eta Johnen amak begitan hartu baitzuten haien harremana.



Azkenean, gure maitaleek gogoak eman ziena egin zuten, bai, eta Rathmineseko elizan ezkondu ziren. 1880ko maiatzaren 5ean.

John Joyceren amak ez zion sekula santa gehiago hitz egin semeari.



Mr. eta Mrs. Joycek urterik zoriontsuenak bizi izan zituzten, nahiz eta Murray familiaren babesik ez izan. Johnnek benetan higuin zituen ezkonsenideak, eta haien kontura harpa jotzen eta gaizki esaka jarduten zuen.



John Murray patriarkari "larru-jotzaile xaharra" esaten zioten, birritan ezkondu zelako.



NGAAAA



Bazen ere Mayren lehengusu apaiza, zeinak, zoratu ondoren, William kontable zurrutero parrokia galdu baitzuen.

William eta John Murray, Mayren nebak, bata "tintontzi mozkortia" eta bestea "turutaria" ziren. Gaitzizen egokiak zalantzarik gabe: izan ere, William kontable zurrutero bat zen, eta Johnen bizitza, oro har, dohakabe samarra zen.



Johnnek eta Mayk gogotsu ekin zioten umeak egiteari, eta, 1882ko otsailaren 2an, James Augustine Aloysius jaio zen. Gero etorri ziren Margaret Alice ("Poppie") eta Stanislaus, 1884an. Charles Patrick, 1886ean; George Alfred, 1887ean; Eileen Isabel Mary, 1889ean...



May Kathleen, 1890an; Eva Mary, 1891an; Florence Elisabeth, 1892ean; eta, azkenik, Mabel Josephine Anna ("Baby"), 1893an. Denera, lau mutiko eta sei neskatila. Familia ugaria, bistan denez.

Eta umeak ere aita maite zuen; beharbada ohartzen zelako haren izate konplexua berearen antzekoa zela, neurri handi batean behintzat.




John Joycek lehen semea zuen kutunena, bere talentu eta berezotasunaren dirdira bera ikusten baitzuen haren begi urdinxketan. Gainerako seme-alaba gehienek zapuztu arren, berak ez zuen ezkutatu inoiz Jim txikia zuela begikoen.



1882an, Joycetarrak Dublin hegoaldean bizi ziren, Rathgar errebaletan. Hainbeste umerekin etxea txiki geratu zitzaizenez, handik joatea erabaki zuten bi urte geroago.



Maiatzaren hasieran, itsasbazerreko auzo lasai batera joan ziren, Brayra, hain justu ere.



Trenbideari esker, Brayk komunikazio ona zuen Dublinekin...

...baina John Joyce sarkastikoak pentsatu zuen txartelaren prezioa nahikoa izango zela ezkonenide astunak urrun mantentzeko.



Itsasbazterreko etxetxo polita eta osasungarria zen, eta han haurrak poz-pozik hazi ziren. Jolasa eta barrea nagusi izan ziren, urrezko garai labur hartan.



Anaien arteko aldeak gero eta nabariagoak ziren. Etxekoek "Jim irribarretsua" esaten zioten Jimi, eta Stanislausi -serioa eta ia adin berekoa berau- "Anaia John" ezizen ez hain maitekorraz deitzen zioten.



Joycetarrrek gustuko zuten pianoa jo eta kantatzea, auzokide James Vance botikariak lagundurik. Balada irlandar gozoak entzun ohi ziren arratsetan etxe hartan.



Jim, berriz, Vancetarren alaba Eileen adiskide egin zen.



Baina Vancetarrek protestanteak ziren, eta Joycetarren etxe-maistrak gogorarazi zion mutikoari ezen harreman hark betiko kondenazioa zekarrela.



CONWAY ANDREAK DIO INVERNURA JOANGO ZARELA. ETA ZU IKUSTEN JARRAITZEN BADUT, NEU ERE BAI.



ETA ZER EGINGO DUZU, JIM?

HMM...



ZUREKIN JOAN.



Conway andreari eta betiko kondenazioaz egiten zituen erretolikei egotzi behar zaie Jim izutzea ekaitza lehertzen zen aldiro. Oinaztura bat ikusi orduko.



Jainkoaren hira gainera zetorkiola uste zuen. Txakurrei ere beldurra zien, baina laborri haren arrazoia beste bat zen, bere anaia Stanislausekin jolasean zebilela. txakur batek eraso egin baitzion.



TO, SEME, BOST TXELIN, ETA EZ SALATU INOIZ LAGUNIK.



Clongowes Wood. 1888ko iraila.

Jim eskola jesuita hartan sartu zuenean. John Joyceren asmoa zen semeak hezkuntza pribilegiatua jaso zezala. Baina 6 urteko haurraren iritzia oso bestelakoa zen.



James Aloysiusek eskolakideen esnobismoa jasan behar izan zuen. eta, haiei aurre egiteko. irudimenaz baliatu zen.

JAMES JOYCE NAUZU, BRAY-KOA. AITA DUBLINGO ARISTOKRATA BAT DA.

AITONA CORKEKO EPAILEA DA, ETA OSABA, SINGAPURREN GENERALA.

HARAAA



ZU, BERRIA! NOR DEMONTRE ZARA? EZ ZAITUT EZAGUTZEN.









BETAURREKOAK
HAUTSI
ZAIZKIT,
JAUNA.



ENE/ BA ETXERA IDATZI
BEHARKO DA, BESTE PARE
BAT ESKATZEKO.



IDATZI DUT ETXERA,
JAUNA, ETA AITA
ARNALLEK ESAN DIT
ESKOLAKO LANIK EZ
EGITEKO BESTEAK
IRITSI ARTEAN.



JAKINA BA/ EZIN
DUZU BISTA
BEHARTU. HORIXE
DA KONPONBIDE
ONENA.



BAINA, JAUNA...



GAUR AITA DOLAN GURE GELARA
ETORRI DA, ETA ZARTAZ ZIGORTU
NAU, LANA IDAZTEN ARI EZ
NINTZELAKO.





BAINA... GAIZKI-ULERTU BAT IZAN DA... ZIUR NAGO AITA DOLANEK EZ ZEKIELA ZURE BETAURREKOENA. ESAN AL DIOZU ETXERA IDATZI DUZULA BESTE BATZUK ESKATZEN?



ESAN AL DIOZU, SEME?

EZ, JAUNA.



HARA, IKUSTEN? AITA DOLANEK GAIZKI ULERTU DU. ESAIOZU LIBRE UTZI ZAITUDALA ZENBAIT EGUNEZ ESKOLAK HARTZETIK. EZ HITZ EGIN HONETAZ INOREKIN, ETA AKABO ARAZOA.




BAINA AITA DOLAN BIHAR ERE NI JOTZERA ETORRIKO DA.



HITZ EGINGO DUT HAREKIN. KONFORME ZAUDE ORAIN?



1888an, Britaniar Koroak agintzen zuen Irlandan, eta haren politika errepresioa zen: errepresio kulturala, erlijiozkoa eta militarra, jakina.



Uharteak, ordea, bazuen "koroarik gabeko errege" bat. Charles Stewart Parnell, irlandar politikoa abertzalea eta Irish Parliamentary Partyren burua Londresen. Komunaren Ganberan lorturiko 86 diputatuekin batera, Parnellek etengabe jardun zuen borrokan, Irlandaren autogobernua eskuratzearren.



Tamalez, "Home Rule" k ez zuen aurrera egin, eta gizon handia amildegian behera joan zen, bi ekitaldiko tragedia batean.

1892an, Parnellek kontra zituen liberalak, kontserbadore ingelesak, eliza eta baita bere partiduko traidoreak ere.



Lehen intriga kontserbadorearen prentsaren eskutik etorri zen, esan baitzuten diputatuak zerikusia izan zuela Phoenix Parkeko hilketa politikoeekin. Baina Parnellek tinko eutsi zion.



Bigarren desarra laster izan zen. Parnellek 10 urte zeramatzan emakume ezkondu batekin harremanetan, Kitty O' Shearekin, hain zuzen.



Haren senarrak, O'Shea kapitainak, ordura arte "adardun" egoera jasan bazuen Parlamentuan diputatu-aulki baten truke izan zen. Gauzak, ordea, aldatu egin ziren...




Irlandako eliza katolikoak gorroto zuen Parnell, eta, abaguneaz baliatuz, izugarritzko kanpaina iraingarria egiten hasi zen haren aurka.



Gotzainek Tim Healy Parnellen eskuin eskua estutu zuten, hura paretik kentzen saia zedin. Healyk, jendaurrean buruzagia babestu arren, ez zuen erreparo handirik izan Irish Partyko goi-karguen aldeketa posiblearen aurrean.



Lehen ministro ingeles William Gladstonek ere Healy estutu zuen, "bekatari adulteroa" bazterreratua izan zedin. Kontuan hartzen bada agintari britaniarren denbora-pasa nagusiak promiskuitatea eta azeri-ehiza zirela, bistan da jarrera aski hipokrita zela harena.



Eta, piztiari, azkenik, lur joarazi zioten.




Handik hiru astera, alderdia deseginda zegoen, barruko liskarreetatik, eta Parnell mapa politikotik desagertu zen.



"Koroarik gabeko erregea" Avondaleko erreinu txikian bakartu zen, bere Kitty maitearekin, eta gotzain katolikoek atargabe jaurtitzen zizkieten irain eta difamazioen itzalpean bizi behar izan zuen.



Tragedia handik urtebetera amaitu zen. Eritasun latz eta mingarri batek jota, Parnell azken hatsa eman zuen. Irlandaren historiako atal bat itxi zen horrenbestez, baina zauri bat ere zabaldu zen, eta urteak beharko zituen orbaintzeko. Hiritar askok pentsatu zuen euren lider ohia ez zela oinazeengatik hil, traizio doilor harengatik baizik.



Hiritar desengainatu haietako bat John Joyce zen. Parnellekin batera lurperatu zituen bere ilusio politikoak, idealak eta antzinako Irlanda heroiko hartaz zituen irudi kimerikoak.



Lider handiaren erortzea bere dekadentziaren isla ere bazen. John Joycek edanari eman zion, eta tabernarik taberna ematen zituen gau luzeak ohiko bihurtu ziren.




Zorrak gero eta handiagoak zirenez, Joycek Corkeko ondasunak saldu behar izan zituen, eta familiaren herentzia xahutu zuen.

Gero hipoteka bat sinatu zuen, diru gehiago lortze aldera, eta pentsioa eskastro geratu zitzaion.

Gauzak okerreitik okerrera zihoazkionez, beste hipoteka bat sinatu zuen, eta, horrekin, familia hondamenera eraman zuen.



Parnellen katastrofea estuki loturik zegoen Joycetarren zorigaitzari, eta barru-barrutik erasan zituen denak.



Baita James txikia ere, zeinak 9 urte baitzituen orduan eta, une hura gogoan, poema bat idatzi baitzuen, Tim Healyri eta gidaria traizionatu zuten guztiei zuzendua.



Poema "Et tu, Healy" deitzen zen, eta herri-kondairak dio John Joyce izugarri postu zela semearen lan horrekin eta, sinesgaitza bada ere, poemaren kopia bat posta bidez Vatikanoko Bibliotekara igortzea bururatu zitzaiola.



EZIN SINETSIZKOA DA GERO
APAIZENA. ELIZA HAUTESKUNDE-AGENTZIA
BIHURTU DUTE!



HALAKOA DA ERLITIOA. ARTZAIAK
BIDE ONETIK ERAMAN BEHAR DITU
ARDIAK, HORIXE DA BERE
EGINBEHARRA.



HORI AL DA ERLITIOA?
ALDARETIK POLITIKA
EGITEA?



IZAN ERE, APAIZ BAT EZ
LITZATEKE APAIZ IZANGO,
ELIZTARREI ESANGO EZ
BALIE ZER DAGOEN ONDO
ETA ZER GAIZKI.



AHAZ DEZAGUN
POLITIKA. NORK
NAHI DU OKELA
GEHIAGO?



IRLANDAKO
GOTZAIENEK HITZ
EGIN DUTE/ HAIEN
ESANA BETE BEHAR DA.



GAUZAK ALDATZEN ARI DIRA.
ELIZA EZ BADA POLITIKATIK
URRUNTZEN, AURKI
URRUNDUKO DA JENDEA
ELIZATIK.



ADITU DUZU HORI?
ENEEE!

